Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2016ko apirilaren 22a, ostirala — 75 — Viernes, a 22 de abril de 2016

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### EKONOMIA SUSTAPENEKO, LANDA INGURUNEKO ETA LURRALDE OREKAKO DEPARTAMENTUA

*Fellows Gipuzkoa Programa talentudunak erakartzeko eta eusteko. 2016ko deialdia.*

«Gipuzkoako Foru Aldundiak, etapa berri honetan, eta gaur egungo testuinguruan, helburu estrategiko hau jarri dio bere buruari: susperraldi ekonomikoari eustea. Horretarako, 2015-2019ko Kudeaketa Plan Estrategikoaren barruan, Ekonomia Suspertzeko Plana diseinatu eta abiarazi du.

Gipuzkoak, azken urteotan, bere eredu sozioekonomiko propioa garatu du, eta horri esker, pixkanaka, krisia gainditzen ari da. Une honetan, etorkizunera begiratu behar dugu, eta datozen urteotan hainbat erronkari egin behar diegu aurre. Etorkizuneko erronka horiek guztiak gainditzeko, gure Lurraldeak jadanik badituen oinarriak baliatu behar ditugu, eta aurrera egin. Eta eredu lehiakorrago baterako bidean enpresekin batera aurrera egiteko, kalitateko enplegua sortuz, nahitaezkoa da gure gazteak teknologiarik aurreratuenetan prestatuta egotea eta beharrezko ezagutzak edukitzea, enpresek aukera izan dezaten balio erantsi handiagoa eskaintzeko. Izan ere, kalitateko enplegua ekarriko du halako pertsonak edukitzeak: gai direnak ezagutza berria eta enpresa berriak sortzeko, eta ahalmena dutenak gizartea zerbitzu aurreratuz hornitzeko.

Ildo horretatik, nazioartean bikaintasuneko prestakuntza duten pertsonak Gipuzkoako ikerketa taldeetan sartzeak aberastasuna ekarriko lioke halako taldeak biltzen dituen entitateari. Talentua erakartzeak, beraz, aukera emango die Gipuzkoako ikerketa taldeei, entitateei eta gizarteari, etekina atera diezaioten ikertzaile horien ezagutza aurreratuari, eta, horri esker, lan dinamika berriak sortuko dira.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2000. urtean, Fellows Gipuzkoa Programa jarri zuen martxan, Donostia International Physics Center Fundazioarekin (DIPC) sinatutako hitzarmenaren bidez. Hitzarmen horrek jarraipena izan du, 2015 arte. Programa horren xedea zen oro har euskal jatorrikoak izanik nazioartean garrantzia duten ikerketa taldeetan doktoratu ondorengo formazioa jaso duten ikerlariak erakartzea. Hala, urte horietan, Gipuzkoako Foru Aldundiak, programa horren bitartez finantzatu izan ditu DIPC zentroko ikerkuntza lerroetan lan egin duten ikertzaileak.

2013an, bestalde, antzeko hitzarmen bat sinatu zen Basque Center on Cognition, Brain and Language (BCBL) zentroarekin (Ezagutzaren, Garunaren eta Hizkuntzaren Ikerketarako Euskal Zentroa).

Oraingo asmoa da jarduera hori zabaltzea, Gipuzkoan bikaintasuneko ikerketan aritzen diren zentro guztietara zabaldu ere. Horregatik proposatzen da «Fellows Gipuzkoa» Programa berri hau, Gipuzkoako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sareko zentro guztietara irekita dagoena.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA, MEDIO RURAL Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

*Convocatoria 2016 del Programa Fellows Gipuzkoa de atracción y retención de talento.*

«El gobierno de la Diputación en esta nueva etapa y en el contexto actual se ha planteado como objetivo estratégico apuntalar la recuperación económica. Para ello, en el marco del Plan Estratégico de Gestión 2015-2019, ha diseñado y puesto en marcha el Plan de Reactivación Económica.

Gipuzkoa ha desarrollado a lo largo de los años un modelo socio-económico propio que le está permitiendo superar lentamente la crisis. En este momento es necesario mirar al futuro y afrontar una serie de desafíos en los próximos años. Para superar estos retos de futuro será necesario apoyarse en las bases que nuestro Territorio ya posee y avanzar. Avanzar acompañando a las empresas hacia un modelo más competitivo, creando empleo de calidad. Para ello, es preciso que nuestros jóvenes estén formados en las más avanzadas tecnologías y posean los conocimientos necesarios para que las empresas puedan ofrecer mayor valor añadido. Personas capaces de generar nuevo conocimiento y crear nuevas empresas, que puedan proveer a la sociedad de servicios avanzados. Todo ello redundará en un empleo de calidad.

En este sentido, la incorporación de personas con formación de excelencia a nivel internacional, a los grupos de investigación guipuzcoanos, redundaría en un enriquecimiento para la entidad que lo integre. La atracción de talento permitirá por tanto que los grupos de investigación, las entidades y la sociedad guipuzcoana se beneficien del conocimiento avanzado que estos investigadores poseen, lo que posibilitará la creación de nuevas dinámicas de trabajo.

La Diputación Foral de Gipuzkoa puso en marcha, en el año 2000, el Programa Fellows Gipuzkoa, a través de un convenio suscrito con la Fundación Donostia International Physics Center (DIPC), que ha tenido continuidad hasta 2015. El Programa estaba destinado a la captación de personas investigadoras que, habiendo disfrutado de una formación post-doctoral en grupos de investigación de relevancia internacional, y que, como criterio general, procedieran del País Vasco. A través de este Programa, la Diputación Foral de Gipuzkoa ha financiado a lo largo de estos años personal investigador que ha trabajado en líneas de investigación del DIPC.

En 2013 se firmó un convenio similar con el Basque Center on Cognition, Brain and Language (BCBL).

Es voluntad de la Diputación Foral de Gipuzkoa ampliar esta actuación a todos los centros que se dediquen a la investigación de excelencia en este Territorio. Con este motivo se plantea este nuevo Programa Fellows Gipuzkoa, abierto a todos los centros de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación en Gipuzkoa.

EK\CV GAO-I-2016-02715

Beraz, programa honetan, hau proposatzen da: nazioarteko goi mailako prestakuntza izanik, hala nahi duten ikertzaileak, Gipuzkoako entitateren bateko ikerketa talde batean sartzea.

Ikertzaileak Euskal Herrira itzultzea errazteko, eta jarduerari zentzua emango dion egonkortasun bat emateko, aintzat hartuko da ikertzaileak lotura bat izan dezan Gipuzkoako lurraldearekin. Aintzat hartuko da, orobat, ikertzaileak egin behar duen lana 2020ko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean kokatzea, baita lan horretatik aurreikusten diren emaitzak ere.

Asmoa da ikertzaile horiek pixkanaka sartzea euskal sisteman. Dena dela, onenak erakartzekotan, egonkortasuna eskaini beharra dago. Horregatik eskatuko da, diru laguntzak jaso ahal izateko, entitateak konpromisoa har dezala ikertzailea 3 urtean edukitzeko. Gipuzkoako Foru Aldundiak, ahal den neurrian, eta aurrekontu baliabideen arabera, kontratazio hori kofinantzatzen jarraituko luke, hala badagokio, helburua baita programa honetan proposatzen diren ekintzen bitartez talentuari eustea.

Foru Aldunditik sustatu nahi den politika horizontaletako bat da emakumeen eta gizonen artean benetako berdintasuna bermatzea eta, horregatik, indarrean dago Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako II Foru Plana 2012-2020, berdintasunaren arloko politika publikoen jarduketa esparrua ezartzen duena. Ikerketa eta garapen arloan, gaur egun oraindik, askoz emakume gutxiagok lan egiten dute gizonek baino (% 33 emakume ikertzaile, 2014an, Gipuzkoan). Gipuzkoan ikerketaren eta garapenaren arloan emakumeen presentzia areagotzeko helburuarekin, Programa honetan kontuan hartuko da genero oreka, eta bereziki baloratuko da programan sartzen den ikerlaria emakumea izatea.

Hortaz, «Fellows Gipuzkoa» Programarekin lortu nahi dena da Gipuzkoara talentua erakartzea eta bertan eustea, Gipuzkoan ikertzen duten zentro eta unibertsitateei lagunduz nazioarteko prestakuntza duten ikertzaileak kontrata ditzaten. Horrela, bada, gure ikerketa taldeak sendotu egin nahi dira, eta aurrera egin nahi da helburu honetan: Gipuzkoa punta-puntako eskualde gisa kokatzea I+G arloan, eta, hori oinarri hartuta, ezagutza sortzea, enpresei euskarri bat emateko, kalitateko enplegua sor dezaten, eta maila goreneko zerbitzu batzuk eskaintzea ahalbidetu dezaten, helburu hori lortu nahi baitu Gipuzkoako Ekonomia Suspertzeko Planak.

Horregatik, Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentuko foru diputatuak proposatuta, eta gaiaz hitz egin ondoren, Diputatuen Kontseiluak.

ERABAKITZEN DU

*Lehenengo.* Onartzea «Talentudunak erakartzeko eta eusteko Fellows Gipuzkoa Programa» izeneko diru laguntzen oinarri arautzaileak, erabaki honen I. eranskinean jasota daudenak.

*Bigarren.* Onartzea diru laguntzen 2016ko deialdia, erabaki honen II. eranskinean jasota dagoena.

*Hirugarren.* 418.618 euroko gastua baimentzea deialdi hau gauzatzeko, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorretarako kontu-sail hauen kargura:

1.0420.200.781.00.01.2016: 178.618 €.

5.0420.200.781.00.01.2017: 240.000 €.

Baimendutako gastua handitu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak, diru laguntza ematea ebatzi baino lehen. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

En este Programa se propone por tanto la incorporación de personal investigador que, teniendo una formación internacional de alto nivel, quiera incorporarse a un grupo de investigación en alguna entidad guipuzcoana.

Con objeto de facilitar la vuelta de investigadores al País Vasco y de proporcionar una estabilidad que dé sentido a la actuación, se valorará que el investigador tenga una vinculación con este Territorio. Se valorará también que el trabajo a realizar por el investigador se enmarque en el Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación Euskadi 2020, así como los resultados previstos de este trabajo.

Se pretende que estos investigadores se incorporen paulatinamente al sistema vasco. No obstante, para atraer a los mejores es necesario ofrecer una estabilidad. Por ello, para acceder a las ayudas, se requerirá el compromiso de la entidad de mantener al investigador durante un periodo de 3 años. La Diputación Foral de Gipuzkoa, en la medida de lo posible y según las disponibilidades presupuestarias, continuará cofinanciando, en su caso, esta contratación, a través de las acciones de retención de talento que se proponen en este Programa.

Una de las políticas horizontales que se quiere impulsar desde esta Diputación es la igualdad efectiva entre hombres y mujeres, y en este sentido, está en vigor el II Plan Foral para la Igualdad entre Hombres y Mujeres 2012-2020, que establece el marco de actuación de las políticas públicas en materia de igualdad. En el ámbito de la investigación y el desarrollo todavía hoy es mucho menor el número de mujeres que trabaja en este área que el de hombres (33% de mujeres investigadoras en 2014 en Gipuzkoa). Con objeto de apoyar una mayor presencia de la mujer en la investigación y el desarrollo en Gipuzkoa, se tendrá en cuenta en este Programa el equilibrio de género y se valorará especialmente que la persona a incorporar sea mujer.

Con el Programa Fellows Gipuzkoa se quiere por tanto impulsar la atracción y la retención de talento en este Territorio, apoyando la contratación de personal investigador con formación internacional, por parte de los centros y universidades que investigan en Gipuzkoa. Se pretende así fortalecer nuestros grupos de investigación y avanzar en el objetivo de posicionar Gipuzkoa como región puntera en materia de I+D, como base para generar conocimiento que dé soporte a las empresas, que genere empleo de calidad y que permita ofrecer unos servicios al más alto nivel, tal y como persigue el Plan de Reactivación económica para Gipuzkoa.

Por todo ello, a propuesta de la Diputada Foral del Departamento de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial, previa deliberación, el Consejo de Gobierno Foral,

ACUERDA

*Primero.* Aprobar las bases reguladoras para la concesión de las subvenciones del «Programa Fellows Gipuzkoa de atracción y retención de talento» que se adjuntan como anexo I al presente acuerdo.

*Segundo.* Aprobar la convocatoria correspondiente al ejercicio 2016 de las citadas subvenciones, que se acompaña como anexo II al presente acuerdo.

*Tercero.* Autorizar un gasto por importe de 418.618 euros para hacer frente a esta convocatoria con cargo a las siguientes partidas de los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa:

1.0420.200.781.00.03.2016: 178.618 €.

5.0420.200.781.00.03.2017: 240.000 €.

El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria.

EK\CV GAO-I-2016-02715

*Laugarren.* Erabaki honen bidez onartzen diren oinarri arautzaileek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen diren egunean sortuko dituzte ondorioak.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bidea amaitzen du. Erabaki honen aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete interesdunek, zuzenean, Donostiako administrazioarekiko auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dute, erabaki hau argitaratu eta biharamunetik hasita.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta biharamunetik hasita. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke».

Donostia, 2016ko apirilaren 20a.—Alfonso Acarreta Rodríguez, idazkari teknikoa. (2715)

I. ERANSKINA

*Talentudunak erakartzeko eta eusteko fellows Gipuzkoa programaren oinarri arautzaileak.*

*1. oinarria. Diru laguntzaren xedea.*

Oinarri hauek arautzen dituzten diru laguntzen xedea da nazioarte mailan garrantzia duten ikerketa taldeetan doktoratu osteko formazioa jaso duten ikertzaileak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen Gipuzkoako zentroetan sartzen laguntzea.

*2. oinarria. Entitate onuradunen baldintzak.*

2.1. Ondorengo atalean aipatzen diren entitateek jaso ahalko dituzte oinarri hauetan erregulatutako laguntzak, baldin eta ez bazaie 2007ko martxoaren 27ko 3/07 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 12. artikuluan ezarritako debekuetatik bat bera ere egotzi.

Aurreko paragrafoan aipatutakoa egiaztatzeko, enpresa eskatzaileak erantzukizuneko aitorpena aurkeztu behar du Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentuan.

2.2. Oinarri arautzaile hauetan ezarritako laguntzen onuradun izango dira Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean dauden erakundeak (2015eko ekainaren 23ko 109/2015 Dekretuak arautua).

2.3. Entitate onuradunak irabazi asmorik gabeko erakundeak izango dira eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan kokatuta egongo dira.

*3. oinarria. Diruz lagundutako jarduerak.*

Diru laguntzak erabiliko dira ikertzaileak kontratatzeko gastuak osorik edo zati batean finantzatzeko, programa honetan aurreikusitako bi ekintzetarako:

a) Talentudunak erakartzea: Ekintza honen bidez, nazioarte mailako formazioa duten pertsonak erakarri nahi ditugu entitate onuradunen jardun esparruetan proiektuak gauzatzeko, eta gero, hurrengo fase batean, EAEko ikerketa talderen batean sartzeko. Ikertzaile horiek baldintza hauek beteko dituzte: doktoreak izango dira, eta doktoratu osteko formazioan arituak, dagokien esparruan nazioarte mailako garrantzia duen ikerketa talde batean.

Ikertzailea kanpotik erakarri dela ulertuko da baldin eta azken hiru urteetan ez badu 6 hilabete baino gehiagoz lan egin Euskal Herrian.

*Cuarto.* Las bases reguladoras aprobadas por el presente acuerdo producirán efectos a partir del día de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposicion ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello, sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente».

San Sebastián, a 20 de abril de 2016.—El secretario técnico, Alfonso Acarreta Rodríguez. (2715)

ANEXO I

*Bases reguladoras del Programa Fellows Gipuzkoa de atracción y retención de talento.*

*Base 1.ª Objeto de la subvención.*

El objeto de las subvenciones a las que se refieren las presentes bases reguladoras es apoyar la incorporación de personas investigadoras, que hayan disfrutado de una formación post-doctoral en grupos de investigación de relevancia internacional, a centros guipuzcoanos de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación.

*Base 2.ª Requisitos de las entidades beneficiarias.*

2.1. Podrán acogerse a las subvenciones reguladas en estas bases las entidades a que se refiere el apartado siguiente, siempre que no se vean afectadas por ninguna de las prohibiciones del artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

La acreditación de lo señalado en el párrafo anterior se efectuará mediante la presentación de una declaración responsable por parte de la entidad solicitante dirigida al Departamento de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial.

2.2. Tendrán la consideración de beneficiarias de las ayudas establecidas en las presentes bases reguladoras, las entidades incluidas en la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación, regulada por el Decreto 109/2015 de 23 de junio.

2.3. Las entidades beneficiarias a las que se refiere el apartado anterior deberán estar exentas de ánimo de lucro y ubicarse en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

*Base 3.ª Acciones objeto de subvención.*

Las ayudas se destinarán a financiar total o parcialmente los gastos de contratación de personal investigador para los dos tipos de actuaciones previstas en este programa:

a) Atracción de talento: Se pretende incorporar personas investigadoras con formación internacional, para que desarrollen proyectos de investigación en el ámbito propio de actuación de la entidad beneficiaria, para luego, en una fase posterior, incorporarse a algún grupo de investigación vasco. Estas personas deberán ser doctores y haber disfrutado de una formación post-doctoral en algún grupo de investigación internacional de relevancia en su área.

Se entenderá que existe incorporación cuando el investigador no haya trabajado en el País Vasco más de 6 meses en los últimos 3 años.

EK\CV GAO-I-2016-02715

b) Talentudunei eustea: Ekintza honen bidez jarraipena eman nahi zaie, gehienez hiru urtez, Fellows Gipuzkoa Programaren bidez lagundu diren ikerlariei, ikerketa talde batean sartu arte.

Hiru urteko gehieneko epe horrekin erreferentzia egiten zaio ikerlari bat Fellows Gipuzkoa Programaren kargura finantzatuta egongo den gehieneko denborari. Denbora horren barruan sartzen da bai talentudunak erakartzeko ekintzaren kargura finantzatutako denbora, bai deialdi honen aurretik Fellows Gipuzkoa Programaren kargura finantzatutako denbora.

*4. oinarria. Eskaerak aurkezteko modua eta epea.*

4.1. Entitateek eskaera bana aurkeztuko dute, egingo dituen jarduera guztiak jasoko dituena.

4.2. Eskaeraren instantzia eta erantsitako dokumentazioa modu elektronikoan, informatikoan edo telematikoan aurkeztuko dira, ahal bada eta haien izaerak aukera ematen badu, Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitza elektronikoaren bitartez (https://www.gfaegoitza.eus), diru laguntzen atarira sartuta.

Internet bidezko aurkezpena, 2010eko irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretuak, Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilpena arautzen duenak aurreikusitako eran gauzatuko da.

4.3. Dena den, eskaerak eta deialdian eskatzen den gainontzeko dokumentazioa, Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentuaren erregistroan eta Gipuzkoako Foru Aldundiko erregistroan (Gipuzkoa plaza zk.g. Donostia) aukez daiteke, baita 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 38.4. artikuluan aipatzen dituen bideak eta lekuak erabilita ere.

4.4. Eskaerak aurkezteko epea deialdian ezarriko da.

4.5. Entitate eskatzaileek ez dituzte aurkeztu behar eskaerak tramitatzeko, organo eskudunak jadanik badituen agiriak, 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeko 35.f) xedatutakoaren arabera. Horregatik bada, agiri bakoitza non eta zein organo edo bulegotan aurkeztu zen edo eman zen adierazi behar da eskaera inprimakian, non eta ez diren bost urte baino gehiago igaro delako agiriari dagokion prozedura amaitu zenetik. Dokumentazio hori eskuratzea guztiz ezinezkoa denean, agiriok beste modu batera aurkezteko edo, bestela, baldintzak beste modu batera egiaztatzeko eska diezaioke eskatzaileari organo eskudunak.

4.6. Eskaeran edo eskaerarekin batera aurkeztu behar den dokumentazioan identifikazioko datuak ez badira jarri, akatsak egin badira edo osatu gabe utzi badira, Departamentuak eskatzaileari oker dagoena 10 eguneko epean zuzendu dezan eskatuko dio, 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 71.1 artikuluan ezarritakoari jarraiki, eta adieraziko zaio ezen hori egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, aipatutako legearen 42.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Era berean, departamentuak beharrezkotzat jotzen dituen argibideak eta agiri gehigarriak eska ditzake eskaerak baloratzeko.

*5. oinarria. Emateko prozedura.*

5.1. Diru laguntzak, deialdi eta hautapen-prozedura bakarrean emango dira, lehia bidezko konkurrentzian.

b) Retención de talento: Se pretende dar continuidad, durante un periodo máximo de tres años, a los investigadores apoyados a través del Programa Fellows Gipuzkoa, hasta su incorporación a un grupo de investigación.

Los tres años a los que se refiere el párrafo anterior se referirán al periodo total máximo en el que dicha persona estará financiada con cargo al programa Fellows Gipuzkoa, incluyendo por tanto el periodo de financiación con cargo a la actuación de atracción de talento o el financiado con cargo a los Programas Fellows Gipuzkoa anteriores a la publicación de estas bases.

*Base 4.ª Forma y plazo de presentación de solicitudes.*

4.1. Cada entidad presentará una única solicitud que contendrá todas las actuaciones a realizar.

4.2. La instancia de solicitud y la documentación que se adjunte se presentará preferentemente y siempre que su naturaleza lo permita, por medios electrónicos, informáticos o telemáticos, a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa (https://www.gfaegoitza.eus), en la que se accederá al portal de subvenciones.

Esta presentación vía Internet se realizará en los términos previstos en el Decreto Foral 23/2010, de 28 de septiembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral.

4.3. No obstante, las solicitudes, junto con el resto de documentación que se establezca en la convocatoria, también podrán presentarse en el Registro del Departamento de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial, en el Registro General de la Diputación Foral de Gipuzkoa (Plaza de Gipuzkoa, s/n. San Sebastián), o por cualquiera de los medios previstos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

4.4. El plazo de presentación de solicitudes se fijará en la convocatoria.

4.5. Las entidades solicitantes no estarán obligadas a presentar los documentos que ya obren en poder del órgano competente para la tramitación de las solicitudes, de conformidad con lo previsto en el artículo 35. f) de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, debiendo indicar en la solicitud la fecha y el órgano o dependencia en que fueron presentados o, en su caso, emitidos, siempre y cuando no hayan transcurrido más de cinco años desde la finalización del procedimiento al que correspondan. En los supuestos de imposibilidad material de obtener la documentación, el órgano competente podrá requerir a la persona solicitante su presentación ó, en su defecto, la acreditación por otros medios de los requisitos a que se refiere el documento.

4.6. Si la solicitud o la documentación que debe acompañarla no reuniera los datos de identificación, adolecieran de algún error o fueran incompletas, se requerirá a la persona solicitante, de acuerdo con lo establecido en el artículo 71.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, para que, en el plazo de diez días, subsane los defectos detectados, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, en los términos previstos en el artículo 42.1 de la citada Ley.

Igualmente el Departamento podrá solicitar cuantas aclaraciones y documentación adicional considere necesario para la evaluación de las solicitudes.

*Base 5.ª Procedimiento de concesión.*

5.1. El procedimiento de concesión de la subvención será el de concurrencia competitiva mediante convocatoria y procedimiento selectivo único.

5.2. Laguntzak emateko prozedura ofizioz hasiko da, deialdi publikoaren bidez, aurreko atalean aipatzen dena. Deialdia organo eskumendunak onartuko du eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da.

*6. oinarria. Balorazio irizpideak.*

6.1. Talentudunak erakartzeko ekintzak hautatzeko, honako balorazio irizpide hauek hartuko dira kontuan:

a) Ikerlariari lotutako irizpideak: gehienez ere 30 puntu.

— Nazioarteko formazioa: nazioarteko zentroetan egindako egonaldiak baloratuko dira, eta kontuan hartuko dira egonaldiaren iraupena eta ikertzailearekin lan egin duen ikerketa taldearen kalitatea. Gehienez ere 6 puntu.

— Argitalpenak: aldizkari indexatuetan argitaratutako artikuluak, liburuetako kapituluak, liburuak eta abar baloratuko dira, eta baita ere kongresu eta bilera zientifikoetan egindako aurkezpenak eta txostenak. Gehienez ere 6 puntu.

— Proiektuak: Europako, nazioarteko, estatu mailako nahiz eskualde mailako finantzazioa lortu duten proiektuetan parte hartu izana baloratuko da. Gehienez ere 6 puntu.

— Beste merezimendu batzuk: enpresekin egindako elkarlan proiektuak, patenteak eta erabilgarritasun-ereduak baloratuko dira, eta baita ere spin-off izenekoak abian jartzen parte hartu izana. Ikertzaileak lortutako bekak ere baloratuko dira. Gehienez ere 6 puntu.

— Gipuzkoarekiko lotura: ikertzaileak Lurraldearekiko duen harremana baloratuko da. Gehienez ere 4 puntu.

— Ikertzailea emakumea bada bi puntu gehiago emango dira.

b) Ikertzailea sartuko den ikerketa taldearen lanari lotutako irizpideak: gehienez ere 20 puntu.

— Helburuak eta lanaren plangintza. Aurreikusten diren helburuen irismena eta dagokion ikerketa lerroaren garrantzia baloratuko dira. Bestalde, Euskadi 2020 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren barruan duen kokapena baloratuko da. Azkenik, baloratuko da, baita ere, aurkeztutako lan plana egokitzen den proposatutako helburuetara, eta plan hori errealista den. Gehienez ere 10 puntu.

— Aurreikusitako emaitzak. Argitalpenak, kongresuetan egiten diren aurkezpenak, patenteak, spin-off-ak, proiektuetan parte hartzea, elkarlana eta ikerketan lortuko dela aurreikusten den beste edozein emaitza, nahiz emaitza horien garrantzia eta eragin sozioekonomiko eta teknologikoa. Gehienez ere 10 puntu.

c) Ikerlaria sartuko den lan-taldeari lotutako irizpideak: gehienez 20 puntu.

— Taldea osatzen duten kideen kopurua eta profila. Baloratuko da ea orekarik dagoen doktore kopuruaren, doktoratu aurreko ikerlari kopuruaren, bekadun kopuruaren eta laguntzaile kopuruaren artean. Genero oreka dagoen ere baloratuko da. Gehienez ere 8 puntu.

— Taldeak lortu dituen emaitzak. Baloratuko dira inpaktua duten aldizkarietan argitaratu dituen artikuluak, Europako eta nazioarteko proiektuetan parte hartu izana, konkurrentzian lortu duen finantzazioa, lortu dituen patenteak, abian jarritako spin-off-ak eta enpresekin ezarritako kontratuak. Nazioarteko elkarlana eta sareetan parte hartzea ere baloratuko dira. Gehienez ere 12 puntu.

d) Entitateari lotutako irizpideak: gehienez 30 puntu.

— Tamaina: Entitateak ikerlaria kontratatzeko egingo duen ahalegina eta kontratazioaren inpaktua baloratuko dira. Gehienez ere 6 puntu.

5.2. El procedimiento de concesión de las ayudas se iniciará de oficio, mediante la convocatoria pública a la que se hace referencia en el apartado anterior, aprobada por el órgano competente y publicada en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

*Base 6.ª Criterios de valoración.*

6.1. La selección entre las solicitudes para las actuaciones de atracción de talento se efectuará de conformidad con los siguientes criterios de valoración:

a) Criterios vinculados a la persona investigadora: hasta 30 puntos.

— Formación internacional: se valorarán las estancias en centros a nivel internacional, teniendo en cuenta la duración de éstas y la calidad del grupo de investigación con el que ha trabajado: hasta 6 puntos.

— Publicaciones: se valorarán los artículos en revistas indexadas, capítulos de libro, libros,..., así como las presentaciones y ponencias realizadas en congresos y reuniones científicas: hasta 6 puntos.

— Proyectos: se valorarán los proyectos en los que ha participado y que han obtenido financiación en convocatorias europeas, a nivel internacional, a nivel de estados y regional: hasta 6 puntos.

— Otros méritos: Se valorarán los proyectos realizados con empresas, las patentes y los modelos de utilidad, así como la participación en la creación de spin-offs. Se valorarán también las becas obtenidas: hasta 6 puntos.

— Vinculación con Gipuzkoa: Se valorará su relación con el Territorio: hasta 4 puntos.

— Se darán dos puntos si la persona investigadora es una mujer.

b) Criterios vinculados al trabajo que desarrollará el grupo de investigación en el que se integrará la persona investigadora: hasta 20 puntos.

— Objetivos y plan de trabajo: se valorará el alcance de los objetivos previstos y la relevancia de la línea de investigación en la que se integre, así como su encuadre en el Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación Euskadi 2020. Se valorará también la adecuación del plan de trabajo presentado a los objetivos propuestos y el carácter realista del mismo: hasta 10 puntos.

— Resultados previstos: se valorarán las publicaciones, presentaciones en congresos, patentes, spin-offs, participación en proyectos, colaboraciones y cualquier otro resultado que se prevea en el curso de la investigación, así como la relevancia y el impacto socio-económico y tecnológico de estos resultados: hasta 10 puntos.

c) Criterios vinculados al grupo de investigación en el que se integrará la persona investigadora: hasta 20 puntos.

— Número y perfil de las personas integrantes del grupo: se valorará el equilibrio entre el número de doctores, numero de investigadores pre-doctorales, becarios y colaboradores, así como el equilibrio de género: hasta 8 puntos.

— Resultados obtenidos por el grupo: se valorarán los artículos publicados en revistas de impacto, la participación en proyectos europeos e internacionales y la financiación de proyectos en concurrencia, las patentes obtenidas, la creación de spin-offs y los contratos establecidos con empresas. Se valorarán también las colaboraciones del grupo a nivel internacional y la participación en redes: hasta 12 puntos.

d) Criterios vinculados a la entidad: hasta 30 puntos.

— Tamaño: se valorará el esfuerzo a realizar por la entidad para incorporar una nueva persona investigadora y el impacto de la contratación: hasta 6 puntos.

EK\CV GAO-I-2016-02715

— Ikerlaria sartuko den ikerketa taldearen garrantzia entitatearen barruan. Baloratuko dira taldeko kide kopurua eta taldearen tamaina, beste taldeekin konparatuta, nahiz taldeak lantzen duen ikerketa ildoaren garrantzia, eta zentroaren ildo estrategikoekiko egokitasuna. Gehienez ere 8 puntu.

— Entitatearen emaitzak. Aurreko apartatuan taldearen emaitzei buruz zehazten diren puntuak baloratuko dira hemen ere, baina entitateei dagokienez kasu honetan. Gehienez ere 8 puntu.

— Ikertzailea finantzatzeko aukera. Baloratuko da zein aukera dagoen, behin programa honek estaltzen duen epea amaitu ondoren, ikerlaria entitatearen kargura edo beste iturrien bidez mantentzeko. Gehienez ere 8 puntu.

6.2. Talentua eusteko jarduketek lehentasuna izango dute, talentua erakartzekoen aurretik. Talentua eusteko eskaeren arteko hautaketa ondorengo balorazio irizpideen arabera egingo da:

— Balorazioaren %80 lortuko da portzentaje hau aplikatuz ikerlaria Fellows Gipuzkoa Programan sartu zen unean lortutako balorazioari, bigarren urtez aurkezten diren ikerlarientzat, edo aurreko urtean lortutako balorazioari, hirugarren urtez aurkezten diren ikerlarientzat.

Irizpide honen arabera 80 puntu lortuko dira gehienez.

— Aurreko aldian zenbateraino bete diren ezarrita zeuden helburuak eta lan plana. Gehienez 20 puntu.

Deialdi honen aurreko Fellows Gipuzkoa Programatik datozen ikertzaileen kasuan, lehenengo urtean 6.1 oinarriaren arabera lortutako balorazioa aplikatuko da.

6.3. 50 puntu baino gutxiago lortzen duten jarduketei ez zaie laguntzarik emango.

6.4. Talentua erakartzeko laguntza eskuratu ahal izateko, entitate eskatzaileak konpromiso bat hartu behar du: kontratatutako ikerlaria gutxienez 3 urtez mantenduko duela.

Talentua eusteko jarduketen kasuan, eta oinarri hauek argitaratu aurreko Fellows Gipuzkoa programatik datozen ikerlarien kasuan, konpromiso bera hartuko da, baina 3 urteko epe hori zentroan sartu zen unetik kalkulatuko da.

*7. oinarria. Finantzazioa.*

7.1. Emango diren diru laguntzak Gipuzkoako Lurralde Historikoko aurrekontu orokorren kargura finantzatuko dira. Deialdian ezarriko da zein aurrekontu kredituren kargura finantzatuko diren diru laguntzak.

*8. oinarria. Diru laguntzen zenbatekoa.*

8.1. Diru laguntza zenbatekoa izango den erabakitzeko, kontuan hartuko da erakunde eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa, batetik, eta aurrekontu bitartekoak eta oinarri hauetan dauden balorazio irizpideak, bestetik.

8.2. Erakunde eskatzaileak aurkeztutako aurrekontua (edo ondoren egindako aldaketak), diru laguntza kopurua zehazteko eredutzat erabiliko da. Diru laguntza jarduera kostuaren portzentaje bat izango da eta diru laguntzaren kopurua guztira ezingo da izan hasieran emandakoa baino handiagoa.

8.3. Ikerlaria kontratatzeak eragindako gastuen %100 arte finantzatuko da, gehienez ere 50.000 eurorekin lehenengo kontratazio urtean; %80 arte bigarren urtean, gehienez ere 40.000 eurorekin; eta %70 arte hirugarren urtean, 35.000 eurorekin gehienez.

8.4. Diru laguntza inoiz ez da diruz lagundutako jardueraren kostu osoa baino gehiago izango.

— Relevancia del grupo que integrará al investigador en la entidad: se valorará el número y el tamaño del grupo en relación con el resto de los grupos, así como la relevancia de la línea de investigación que abordará este grupo y su adecuación a las líneas estratégicas del centro: hasta 8 puntos.

— Resultados de la entidad: Se valorarán los mismos resultados que se detallan en el apartado anterior de resultados para el grupo, pero en este caso relativos a la entidad: hasta 8 puntos.

— Posibilidades de financiación del investigador: se valorarán las opciones de mantener el investigador con cargo a la entidad o a través de otras fuentes cuando finalice el periodo cubierto por este Programa: hasta 8 puntos.

6.2. Las actuaciones de retención de talento tendrán prioridad respecto a las de atracción. La selección entre las solicitudes de retención de talento se efectuará de conformidad con los siguientes criterios de valoración:

— El 80% de valoración se realizará aplicando este porcentaje: a la valoración obtenida en el momento en que se incorporó el investigador al Programa Fellows Gipuzkoa, para los investigadores que se presenten por segundo año; o a la valoración obtenida el año anterior, para los que presenten por tercer año.

Se obtendrán por este criterio hasta 80 puntos.

— Grado de cumplimiento de los objetivos y del plan de trabajo durante el periodo anterior: hasta 20 puntos.

En el caso de investigadores provenientes del Programa Fellows Gipuzkoa anteriores a la publicación de estas bases, el primer año, se aplicará la valoración que se obtenga según los criterios de la Base 6.1.

6.3. No se concederán ayudas a las actuaciones que obtengan una puntuación inferior a 50 puntos.

6.4. Para acceder a las ayudas de atracción de talento deberá existir un compromiso, por parte de la entidad solicitante, de mantener, al menos durante 3 años, al investigador contratado.

En el caso de las actuaciones de retención de talento y de las personas investigadoras provenientes del programa Fellows Gipuzkoa anteriores a la publicación de estas bases, el compromiso será el mismo, pero el periodo de contratación a considerar se habrá iniciado en el momento de su incorporación al centro.

*Base 7.ª Financiación.*

7.1. Las subvenciones que, en su caso, puedan otorgarse se financiarán con cargo a los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa. La convocatoria establecerá los créditos presupuestarios con cargo a los cuales se financiarán las subvenciones.

*Base 8.ª Cuantía de las subvenciones.*

8.1. El importe subvencionable y la subvención se fijarán con arreglo a la documentación aportada por la entidad solicitante teniendo en cuenta las disponibilidades presupuestarias y los criterios de valoración definidos en estas bases.

8.2. El presupuesto presentado por la entidad solicitante o sus modificaciones posteriores servirán de referencia para la determinación final del importe de la subvención, calculándose ésta como un porcentaje del coste final de la actividad, sin que el importe final de la subvención pueda superar el inicialmente concedido.

8.3. Se subvencionará hasta el 100% de los gastos de contratación del investigador, con un máximo de 50.000 €, el primer año de contratación; hasta el 80%, con un máximo de 40.000 €, el segundo año; y, hasta el 70%, con un máximo de 35.000, el tercer año.

8.4. Las subvenciones en ningún caso podrán superar el coste total de la actividad subvencionada.

